

2015

ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA

Ernest Lluch Kultur Etxeak sorrera unetik zehaztutako ildoei jarraitu zien 2015. urtean, programazioan berrikuntzak eta sorkuntza berriak txertatuz. Zientzia, literatura eta hausnarketa kritikoa sustatu ziren, herritarrei gogoetarako aukerak zabalduz.

Baina 2015ean aipamen berezia merezi duten bi arlo edo egitasmo nabarmendu behar dira, liburutegiarekin elkarlanean gauzatutakoak biak.

Batetik, kultur etxearen eta Amararen arteko lotura nabarmen indartu zen, eta, azpimarratzekoa, Amarauna proiektua. Kultur etxeko liburutegiak sustatutako egitasmoak Amara auzoko iraganaren eta orainaren ezagutza indartzea du helburu eta 2015ean, **Amarauna** egitasmoa kalera atera zuten liburutegiko arduradunek, eta auzotarrekin harremanak baliatu zituzten argazki eta istorio zaharrak berreskuratzeko. Gerora ere zeregin horretan lagungarri izango da azaroan abian jarri zen Amaraunaren webgune propioa.

Bestetik, **Olatu Talka** jaialdian, **Amarapedia** esperientzia aitzindaria jarri zen martxan, Amarako herritarren parte-hartzearekin auzoko kultura sortzea eta zabaltzea xede dituen egitasmoak arrakasta eta erantzun ezin hobea jaso zituen. Amarauna ekimenarekin hasitakoari, beraz, jarraibidea eman zion Amarapediak.

Udazkenean, honi lotuta ere, **Lehengo Amara** erakusketa burutu zen. Auzoaren historia eta argazki zaharrak erakustearekin batera, garai bateko lanabesak eta bestelako tresnak egon ziren ikusgai.

Ernest Lluch Kultur Etxeko espezializazio edo ildo nagusiei erantzunez, programazioan zientzia, literatura eta hausnarketa kritikoa landu ziren. Honen adibide, **Hiria pentsatu 2** zikloaren inguruko jarduerak ziren. Hitzaldien artean, Jorge Carrión idazleak edo COAVN Arkitekto Elkargoko arkitektoek eskainitakoak aipa daitezke, bai eta gaiari lotutako film sorta ere. Sei argazkilarik hiriari lotuta egindako argazkiak, bestalde, erakusgai izan ziren Ahaztuak erakusketan.



Amarapedia



Lehengo Amara erakusketa

Literaturari dagokionez, **David Trueba**, **Justo Navarro** eta **Harkaitz Cano** idazleak izan ziren Ernest Lluch Kultur Etxean, haien liburuei ez ezik, literaturari eta euren esperientziei buruz solasean.

Zientziari lotuta, bestetik, **Agustín Fernández Mallo** idazle eta fisikariak solasaldi interesgarria eskaini zuen **Gustavo Schwartz** fisikariarekin batera, *Influ(c)encias literarias* emanaldian.

Solasean saioan, berriz, **Fernando Trueba** zinemagileak areto nagusia betetzea lortu zuen. Euskadiko Filmategiko zuzendari Joxean Fernándezekin solasean, Truebak bere obra, ibilbidea eta sormen-munduaren gakoak azaldu zituen.

Erakusleihoak, ohi bezala, formatu txikiko ikuskizun interesgarriak ezagutzeko aukera eskaini zuen, euskaraz zein gaztelaniaz. Ernest Lluch Kultur Etxean, **Tipos de tipas**, **Pepe Artola**, **Ciudad Juárez** edo **Guillán & Rueda** ikuskizunak izan ziren, besteak beste.

Ernest Lluchek eskainitako **ikastaroak**, berriz ere, arrakastatsuak izan ziren eta askotariko diziplinak ezagutzeko aukera eman zuten. Egile ikastaroetan, gainera, besteak beste, **Luisa Etxenikek**, **Aritz Gorrotxategik** edo **Jesús Torquemadak** parte hartu zuten, ohiko ikastaro eskaintzari balio erantsia eskainiz. 1.000tik gora parte-hartzaile izan ziren emandako 80 ikastaroetan.



David Trueba



Fernando Trueba



Zientzia eta literatura jardunaldiak

DATUAK

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	401	19.851
Antzerkia	28	3.621
Bideoa eta Zinea	33	1.895
Musika	6	522
Hitzaldiak	33	1.120
Ikastaroak eta tailerrak	32	752
Exposiciones	11	2.809
Elkarteen bilerak eta jarduerak	196	7.488
Liburutegiko jarduerak	62	1.644
SERVICIOS		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	494	149.944
Liburutegiko bisitariak		133.413
Haurtxokoa	128	6.105
Gaztelekua	123	5.787
Plus 55	70	3.384
Kzgunea	114	628
IT Txartela	59	627

PRESTAKUNTZA EMAKUMEAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	114	1.542	37	234	75	1270
2014/2015 ikastaroak	59	1.121	11	137	46	946
2015/2016 ikastaroak	55	421	26	97	29	324

PRESTAKUNTZA GIZONAK

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	114	440	37	48	75	390
2014/2015 ikastaroak	59	334	11	30	46	302
2015/2016 ikastaroak	55	106	26	18	29	88

Bisitariak GUZTIRA: **280.084**